



## **Epailea eta haren borreroa**

**F. Dürrenmatt**

Polizia-eleberri bat da, ongi idatzita dago eta ongiaren eta gaizkiaren gaineko gogoeta bat egiteko pretentsioa du. Polizia-eleberri guztiekin gertatu ohi den bezala, irakurleak beti jarri behar du zerbait bere aldetik, puzzlearen pieza guztiak “ezin hobeki” bat datozela sinetsiko badu. Ez dut esango literatura unibertsaleko lanik “gorenetakoa” iruditu zaidanik, baina, nolana ere, irakurketa atsegina da, edo niri behintzat atsegingarri eta entretenigarria gertatu zait, irakurlea harrapatzen du.

Ongiaren eta gaizkiaren gaineko gogoeta aipatuaz gain, beste zenbait zehaztasun ere azaltzen dira liburuan zehar; esaterako, “inbertsio handiak” egiteko ahalmena duten gizabanako boteretsuen eta botere-guneen artean sor daitekeen eta sortzen den konplizitatea; Suitzako arestiko iraganari buruzko aipamen labur eta arin bat edo beste (II. Mundu Gerrarekin eta Alemania naziarekin lotuta); kontaketa zehar azaltzen diren eta “lau” samarrak diren polizia batzuen “gehiegizko” amarrugabetasuna (pintzelkada pare batez karakterizatuta egon arren, haien iruzkinak esanguratsuak gerta daitezke une jakin batzuetan); Suitzako hizkuntza-errealitateari buruzko iruzkin labur batzuk (diglosia, eta abar.)

Hasieran, idazleak oso ongi eraturik dauden bi pertsonaia poliziako sortu nahi dituela ematen du, haietako bakoitzak bere “ikerketa-liburuxka” propioa izango balu bezala, eta abar. Aldiz, aurrerago, garbi dago gauzak ez doazela inondik inora ildo horretatik.

Bi pertsonaia hauek Bernan Barlach (Komisarioa) eta haren laguntzaile Tschanz dira. Egia esan, Dürrenmattek sortu nahi izan balitu detektibe-nobeletan agertu ohi diren mota horretako bi pertsonaia, ez zatekeen bat ere erraturik ibiliko; hau da, hasieran, Agatha Christie edo Conan Doyleen moduko pertsonaia literario baten aurrean gaudela ematen du, prosa txukun batez lagunduak eta ongi karakterizatuak biak.

Barlach komisarioa Poirot edo Sherlock Holmes moduko bat izan zitekeen, aldeak alde.

Noski, horretarako ezinbestekoa izango litzateke egileak hainbat eta hainbat kontakizun sortzea eta, behin ez, baizik eta askotan egin dezakeela frogatzea, zeren mota horretako literaturan, oro har, beharrezkoa izaten baita kontakizun-sorta bat sortzea pertsonaia nagusia finkatzeko eta irakurlearekin “luzera” iraungo duen konplizitate bati bide emateko.

Hala eta guztiz ere, esan bezala, hau ez da kasua. Liburu honetako protagonistak, Barlach komisarioa barne, liburuarekin batera “amaitu” egiten dira, eta garbi gelditzen da ez dela hori idazleak buruan zerabilen asmoa.

Bestalde, eleberri laburra da, apenas 150 orrikoa; laburregia, beraz, literatura unibertsalean leku nabarmena izateko, batzuetan hedadura gutxiko liburuak literatura unibertsalaren rankingean sonatu bihurtzen badira ere –liburu honekin gertatu ez dena, nahiz eta haren irakurketa gomendagarria izan–. Argitalpen honek, nolana ere, literatura unibertsaleko “avis raris” bat ezagutzeko aukera eman digu: idazle suitzar bat.

Ez pentsa, ordea, Suitzan idazlerik ez dagoela, badaude-eta. Kontua da hango idazlerik gehienek Suitzako hizkuntzarik ahaltsuenak eta ofizialenak erabiltzen dituztela, hau da, alemaniera, italiara edota frantsesa, eta horren ondorioz, hizkuntza horiek loturik dauden unibertso politiko, kultural eta ekonomikoan apur bat “diluituta” edo “urtuta” gelditzen dira suitzar idazleak...

Pertsonaiek Suitza inguruko izen-abizenak dituztenez, ziur aski apur bat gaitzagoak dira gogoan atxikitzen gure latitudeetako irakurleentzat; hori dela eta, beti bezala, pertsonaiak agertu ahala horien zerrenda egitea gomendatzen dizuet, uneoro argi eta garbi edukitzeko nor den bakoitza eta narrazioaren haria ez galtzeko, batez ere liburuak takada batez irakurtzea posible ez zaigunean –kasu honetan horren zaila ez bada ere, egunbeteko irakurketa izanik.

Norbaitek liburuko pertsonaien zerrenda egiteko gogorik ez balu, hona hemen:

- Bernan Bärlach, Komisarioa
- Tschanz, Ikertzailea eta Bärlach komisarioaren laguntzailea
- Ulrich Schmied, polizia hila
- Gastmann, gaizkilea eta Bärlach komisarioaren aspaldiko ezaguna
- Idazlea, Gastmann-en adiskidea
- Alphons Clemin, Twann-eko polizia
- Lucios Lutz, doktore kriminalista eta fiskal nagusia
- Blatter, polizia handi eta lodikote bat, sekula hitzik egiten ez duena
- Jean Pierre Charnel, Lanboing-eko polizia (frantsesez hobeto moldatzen da alemanez baino)
- Von Schwendi, Koronela eta Gastmann-en babeslea
- Anna, Shmieldd-en andregai
- Prantl doktorea, Schmieldd-ek erabilitako gezurrezko izena
- Samuel Hungertobel, Bärlach-en sendagilea
- Schönler familia, Schmieldd-en ostatua gobernatzen duen familiaren abizena